Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko ekainaren 13a, asteartea — 112 — Martes, a 13 de junio de 2017



## ASTIGARRAGAKO UDALA

*Iragarkia*

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoa betez eta bertan aurreikusitako ondorioetarako, jakinarazten da Udalbatzak, 2017ko maiatzaren 31n egindako bilkuran, erabaki zuela behin betiko onespena ematea Hiri-hondakinak bildu eta tratatzeko udal-ordenantzaren aldaketa zehatzari.

Aipameneko Ordenantzaren testu bateginaren eduki osoa argitaratzen da.

Erabaki honen aurka, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean, Bilbon, honako hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita bi hilabeteko epean.

Astigarraga, 2017ko ekainaren 6a.—Zorione Etxezarraga Ortuondo, alkatea. (4130)

*Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantza.*

### ARRAZOIEN AZALPENA

Egun Astigarragako Udalak ez du hiri hondakinen bilketa arautzen duen ordenantzarik. Gainera, kontutan izanda, batetik, 2012ko martxoaren 28ko Ohiko Udal Osoko bilkuran hondakinen bilketa sistema atez atekoa izatearen aldeko mozioa onartu zela eta bestetik, Hondakinei eta lur kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak aldi baterako bigarren xedapenean jasotzen duena eta azkenik errefusa gutxiago sortzeko beharra dagoela, Astigarragako Udalak Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko Ordenantza baten beharra du.

### I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Helburua.*

Ordenantza honek, Udalaren eskuduntzen barruan, ondorengo jarduerak arautzea du helburu:

— Hiri hondakinen bilketa eta tratamendua (aurrerantzean HH).

Halaber, Udalaren (bilketa zerbitzuaren kudeatzailea) eta zerbitzu honen erabiltzaileen arteko harremanak arautzen ditu, bi aldeen eskubideak eta betebeharrak erabakiz.

*2. artikulua. Aplikazio eremua.*

Ordenantza honen lurralde eremua Astigarragako Udal barrutia da.

*3. artikulua. Kudeaketa arduraduna.*

Hiri hondakinen kudeaketa Astigarragako Udalari dagokio.

## AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

*Anuncio*

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/85 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y a los efectos en él previstos, se hace público que en el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 31 de mayo de 2017, se acordó aprobar definitivamente la modificación de la Ordenanza Reguladora de la recogida y tratamiento de residuos urbanos.

Se procede a la publicación íntegra del contenido del texto de la Ordenanza referida.

Contra el presente acuerdo los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación del Reglamento en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Astigarraga, a 6 de junio de 2017.—La alcaldesa, Zorione Etxezarraga Ortuondo. (4130)

*Ordenanza reguladora de la recogida y tratamiento de residuos urbanos.*

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Hoy en día el Ayuntamiento de Astigarraga no dispone de un Ordenanza reguladora para la recogida y tratamiento de los residuos urbanos. Además teniendo en cuenta que en el pleno del 28 de marzo del 2012 se aprobó la moción a favor del sistema recogida de residuos puerta a puerta, la disposicón transiotoria segunda de la Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados y por último la necesidad de disminuir la cantidad de rechazo generado, el Ayuntamiento necesita redactar una Ordenanza de recogida y tratamiento de residuos urbanos.

### TÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto.*

Esta ordenanza tiene por objeto regular, dentro de la esfera de la competencia municipal, las siguientes actividades:

— Recogida y tratamiento de residuos urbanos del municipio de Astigarraga (en adelante RU).

Regula asimismo, las relaciones entre el Ayuntamiento que asume la Gestión de los servicios de recogida y los usuarios de los mismos; determinando los derechos, deberes y obligaciones de cada una de las partes.

*Artículo 2. Ámbito de aplicación.*

El ámbito territorial de la presente Ordenanza se refiere al término municipal de Astigarraga.

*Artículo 3. Responsabilidad de la gestión.*

La gestión de los residuos urbanos corresponde al Ayuntamiento de Astigarraga.

EK\CV GAO-I-2017-04130

*4. artikulua. Erabiltzaileak.*

Zerbitzu hauetako prestazioetan erabiltzaile kategoria dute zerbitzu hauen onuradun edo kaltetu diren pertsona fisiko nahiz juridikoak, baldin eta Astigarragako Udalerrian helbidea badute.

*5. artikulua. Araudi aplikagarria.*

Ordenantza honek Hondakinen eta lur kutsatuen uztailaren 28ko 22/2011 Legeari eta gainontzeko xedapen aplikagarriei jarraitzen die.

*6. artikulua. Hondakinen definizioa.*

Ordenantza honen ondorioetarako honako hau hartuko da «Hondakin» gisa: Hondakinei eta lur kutsatuei buruzko uztailaren 28eko 22/2011 Legearen 3. artikuluan agertzen diren kategorietakoren bati dagokion edozein sustantzia edo gauza, baldin eta horren edukitzaileak botatzen badu edo botatzeko asmoa edo betebeharra badu. Nolanahi ere, Europako Batasuneko Erakundeek onarturiko Hondakinei buruzko Europako Katalogoan (CER) adierazten direnak ere hartuko dira hondakin gisa.

II. TITULUA

BILKETA ZERBITZUA

I. KAPITULUA. ETXEZ ETXEKO BILKETA

*7. artikulua. Etxez etxe biltzen diren hondakinak.*

Ordenantza honen ondorioetarako, etxez etxeko hondakinen bilketaren barruan ondoko hondakin hauek sartuko dira:

a) Etxeko kontsumo eta elikadurak sortutako hondakinak eta detritusak, ontziteria edo beira hondakinak, ontziak, enbalajeak, kartoiak, oinetako eta jantzien hondakinak eta orokorrean edozein etxetan sortutako zaborreria, aurrez udalak jarritako egun, ordu, modu eta lekuetan biltzeko.

b) A atalean aipatutakoen antzeko jatorria dutenak, baina dendetan, industrietan eta zerbitzuetan sortuak, aurreko atalean adierazitako baldintzetan prestatuta.

c) A ataleko berberak, baina hauek jantoki, eskola, eraikin publiko, eliza, jolas gune eta abarretan sortuak, A atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.

d) Merkatu, feria, festa publiko, etab.en garbiketetatik sortutako hondakinak, A atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.

e) Kale garbiketetan sortutako hondakinak.

*8. artikulua.*

Astigarragako udalerrian merkataritzako hondakin ez arriskutsuen eta industrietan sortutako hondakin domestikoen kudeaketa ordenantza honetan edo inoiz honen ordez onartzen den araudian adierazitako moduan jarritako sistema publikoaren barruan sartuta geratuko dira derrigor, eta honelako hondakinek dituzten hasierako ekoizle edo edukitzaileek ezingo dute Hondakinei eta lur kutsatueen inguruko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 17. artikuluaren 3.atalean jasotako aukera baliatu.

*9. artikulua. Etxez etxeko bilketatik kanpo gelditzen diren hondakinak.*

Kanpoan geratzen dira, eta beraz, etxez etxeko bilketan hartu beharrik ez da egongo, honako hondakin hauek:

— Indusketa produktuak, hareak, lurrak, industrietako errautsak, eta herri lan nahiz pribatuetako zaborrak.

*Artículo 4. Personas usuarias.*

Tienen la categoría de usuarias a los efectos de la prestación de estos servicios, todas las personas físicas y jurídicas que resultan beneficiadas o afectadas por dichos servicios y estén domiciliadas en el municipio de Astigarraga.

*Artículo 5. Normativa aplicable.*

La regulación de la presente Ordenanza se atiene a los principios de la Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados y demás disposiciones aplicables.

*Artículo 6. Definición de Residuo.*

A los efectos de la presente Ordenanza se entenderá por «residuo»: cualquier sustancia u objeto que su poseedor deseche o tenga la intención o la obligación de desechar. Definición recogida en el artículo 3 de la Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y de suelos contaminados. Asimismo, tendrán la consideración de residuos todos aquellos elementos calificados como tales en el Catálogo Europeo de Residuos (CER) aprobado por los Organismos de la Unión Europea.

TÍTULO II

SERVICIO DE RECOGIDA

CAPÍTULO I. RECOGIDA DOMICILIARIA

*Artículo 7. Residuos objeto de la recogida domiciliaria.*

A efectos de la presente Ordenanza, tendrán la consideración de recogida domiciliaria de basuras, los siguientes residuos:

a) Los detritus y desperdicios de la alimentación y consumo doméstico, residuos de cristal o vajilla, envases, embalajes, cartones, desperdicios de vestido y calzado y en general todo residuo producido normalmente en un domicilio y presentado para su recogida en el día, la hora, la forma y el lugar fijados por el ayuntamiento.

b) Los de análoga naturaleza a los descritos en el apartado A, producidos en actividades comerciales, industriales y servicios, presentados y acondicionados en la misma forma indicada en el apartado citado.

c) Los mismos del apartado A, procedentes de comedores, escuelas, edificios públicos, de culto, recreativos, etc., presentados y acondicionados en la misma forma que indica el apartado citado.

d) Los detritus y productos de limpieza de mercados, ferias, fiestas públicas, etc., presentados y acondicionados según se indica en el apartado A.

e) Residuos procedentes de la limpieza viaria.

*Artículo 8.*

La gestión de los residuos comerciales no peligrosos y los domésticos generados en industrias en el municipio de Astigarraga quedan incorporados obligatoriamente al sistema público implantado en los términos señalados en esta Ordenanza o en la normativa que pueda sustituirla en el futuro, sin que los productores o poseedores iniciales de este tipo de residuo puedan ejercer la posibilidad prevista en el artículo 17 apartado 3.º de la Ley 22/2011 de 28 de julio, de Residuos y Suelos Contaminados.

*Artículo 9. Residuos excluidos del servicio de recogida domiciliaria.*

Quedan excluidos, y por tanto, considerados como de recepción no obligatoria de la recogida domiciliaria de residuos:

— Productos de excavación, arenas, tierras, cenizas industriales y cualquier escombro tanto de obra pública como privada.

EK\CV GAO-I-2017-04130

— Edozein pneumatiko mota, estalkiak, industri prozesuetako hondakin plastikoak, barnizak, pinturak, kolak, likido korrosiboak, koipeak eta olioak.

— Bidoiak, lata handiak, zumitzak eta txirbilak.

— Inausketa eta lorazaintzako hondakinak.

— Abeltzaintzako abelburu hilak.

— Arrandegi zein harategiek sortzen dituzten arrain hondakinak edo/eta animali hondakinak.

— Merkataritzan sortzen diren porespaneko bildukiak edo/eta plastikozko bilgarriak.

— Altzarien eta tamaina handikoen bilketan: Isolatutzat edo bakartzat jo ezin diren altzariak edo etxeak altzariz janztean sortzen direnak, bai eta etxeak altzariz janztean edo etxez aldatzean sortzen diren bilgarriak ere.

— Etxeetan era guztietako obrak eta berrikuntzak egiten dituzten, herritar, gremio eta arduradunek sortutako hondakinak, hala nola zaborra, egurra, leiho- edo ate-markoak, zokaloak, pertsianak, oholtza, zoruak, moketa, bainuontziak, komunontziak, konketak, sukaldeko altzariak, erradiadoreak edo antzekoak eta oro har obretan sortzen direnak.

— Udalak zehaztu gabe dauden beste hiri-hondakin mota batzuk sartu ahal izango ditu aurreko zerrendetan, baldin eta beren ezaugarri bereziengatik edo izaeragatik, hondakinen bilketarako udal zerbitzuak bere gain hartu ezin baldin baditu.

*10. artikulua. Derrigorrezko zerbitzua.*

Udala derrigortuta dago etxez etxeko hondakinen bilketa egitera, eta, hortaz, 7. artikuluan adierazitako materialak biltzeko ardura hartuko du.

*11. artikulua. Prestazioak.*

Zerbitzu honen eginbeharrak honako hauek dira:

— Hondakinak uzteko modu eta tokietatik bilketa ibilgailuetara eraman eta hustu.

— Hustu ondoren, edukiontziak bere lekuetara itzuli.

— Lan hauen ondorioz bide publikora eroritako hondakinak jaso.

— Hondakinak zehaztuak dauden tratamendu guneetara edo transferentzia zentruetara eraman eta hustu, han trata ditzaten.

*12. artikulua. Hondakinen jabegoa.*

1. Hiri hondakinen ekoizleek (sortzaileek) edo dauzkatenek, Ordenantza honek jasotako baldintzetan jarri beharko dituzte Erakunde Kudeatzailearen esku, Astigarragako Udalaren esku, alegia, hondakinen jabetza har dezan une horretatik bertatik.

2. Pertsona horiek ez dute erantzunkizunik izango hondakin horiek eragin ditzaketen kalteengatik, baldin eta hondakinak uzterakoan Ordenantza hau eta gainerako lege-arauak bete badituzte.

*13. artikulua. Zerbitzuaren prestazioa.*

Hiri hondakinen bilketa mota guztien maiztasuna Udalak erabakiko du, Udalerriaren interesak kontuan hartuta.

*14. artikulua. Programazioa.*

Udalak jakitera emango du bilketa zerbitzuaren programazioa: egunak, ordutegiak eta bitartekoak. Hala ere, zerbitzuak izan ditzakeen beharren arabera, interes publikoari begira egokitzat jotzen dituen aldaketak egin ahal izango ditu Udalak, aldez aurretik ordutegi, bilketa erak edo maiztasun aldaketen

— Neumáticos de cualquier tipo, cubiertas, residuos plásticos de procesos industriales, barnices, pinturas, colas, líquidos corrosivos, grasas y aceites.

— Bidones, latas grandes, flejes y virutas.

— Residuos procedentes de podas y labores de jardinería.

— Animales muertos en explotaciones ganaderas.

— Residuos generados en las carnicerías y pescaderías.

— Embalajes de porespan y envases de plástico generados en los comercios.

— En recogidas de muebles y enseres de gran tamaño: muebles y elementos procedentes de cambio de mobiliario en viviendas que no pueden considerarse como aislados, incluidos los envoltorios procedentes del amueblamiento de viviendas o traslado de domicilio.

— Residuos generados en obras y reformas de todo tipo realizadas por ciudadanos, gremios o diversos responsables, tales como escombros, maderas, marcos de puertas y ventanas, zócalos, persianas, tarimas, suelos, moquetas, bañeras, inodoros, lavabos, muebles de cocina, radiadores y similares y, en general, cualquier residuo de obra.

— Otros residuos no especificados expresamente por el Ayuntamiento, que por su naturaleza o características especiales, no puedan se atendidos por el servicio municipal de recogida de residuos.

*Artículo 10. Servicio obligatorio.*

El Ayuntamiento está obligado a hacerse cargo de la recogida de residuos domiciliarios y se hará cargo de retirar los materiales especificados como de recepción obligatoria por parte del municipio, siendo éstos los señalados en el artículo 7.

*Artículo 11. Prestaciones.*

La prestación de este servicio comprende las siguientes operaciones:

— Traslado de los residuos desde los lugares y formas indicados y vaciado de los mismos en los vehículos de recogida.

— Devolución de los elementos de contención, una vez vaciados, a los puntos originarios.

— Retirada de restos de residuos caídos en la vía pública como consecuencia de estas operaciones.

— Transporte y descarga de los residuos en las correspondientes plantas de tratamiento o en las estaciones de transferencia que corresponda, para su posterior tratamiento.

*Artículo 12. Propiedad de los residuos.*

1. Quienes producen (personas generadoras) o poseen residuos urbanos deberán ponerlos en las condiciones que se determinan en esta Ordenanza, a disposición del Ayuntamiento de Astigarraga, quien adquirirá la propiedad de los mismos desde la entrega y recogida.

2. Dichas personas quedarán exentas de responsabilidad por los daños que puedan causar tales desechos o residuos, siempre que en su entrega se haya observado la presente Ordenanza y demás normas legales.

*Artículo 13. Prestación del servicio.*

El Ayuntamiento establecerá la recogida de basuras domiciliarias, en todas sus modalidades, con la frecuencia que considere más conveniente e idónea para los intereses del Municipio.

*Artículo 14. Programación.*

Los servicios del Ayuntamiento harán pública la programación prevista de días, horarios y medios para la prestación de los servicios de recogida y de acuerdo con las necesidades del servicio podrá introducir las modificaciones que, por motivos de interés público, tenga por conveniente, divulgándose con sufi-

EK\CV GAO-I-2017-04130

berri emanda. Dena den, larrialdi, ustekabe edo ezinbesteko egoeretan bidezko diren xedapenak emango ditu Udaleko Alkateak. Zehaztapenak Alkatetza-Bandoaren bidez erregulatuko dira.

*15. artikulua. Larrialdiak.*

Larrialdi egoerak ematen direnean, direla gizarte-gatazkak, uholdeak edo ezinbesteko egoeragatik zerbitzua eskaintzerik ez dagoenean, eta Udalak aldez aurretik jakinarazten badu, bizilagunek ez dituzte aterako hondakinak zerbitzua bere onera etorri bitartean, edo Udalak bidezko aginduak eman bitartean.

*16. artikulua. Hondakinen biltze guneak.*

Udalaren zerbitzuek erabakiko dute zonalde bakoitzean erabili beharreko biltze guneak eta, haien motak, kopurua eta kokapenak, udalerriaren interesak kontuan hartuta.

*17. artikulua. Hondakinen gelak.*

1. Egiten diren eraikin berri guztiek –isolatutako familia bakarreko etxebizitzak, adosatuak eta bi etxebizitzetarako direnek izan ezik–, gune bat gorde beharko dute. Gune hauetan, edukiontzien biltegia eraiki ahal izango da. Gordetako eremu hauei, beste edozein behin behineko erabilpen (bizikletak gordetzeko eremua adibidez) eman ahalko zaie, edukiontzien biltegia eraiki bitartean.

2. Hondakin gela kontutan hartuko da eraikigarritasuna kalkulatzeko.

3. Lokal horiek aireztapen natural edo artifizial independentea izango dute; indarrean dagoen araudia beteko dute eta gainera honako baldintzak bete beharko dituzte:

ETXEBIZITZAK.

1,2 metrotik gorako zabalerako ateak.

Zoru iragazgaitzak eta garbigarriak, gutxienez 2 m-ko altueran azulejuz edo morteroz luzituak.

Argi-puntuak, etengailuekin eta emerjentziako argi puntuak.

Mahukez hornitutako txorrotak, lokal osoa erraz eta zuzenean garbitzeko.

Garbiketa-uretarako hustubide sifoiduna.

Atal honetan azaltzen ez diren gainontzekoetarako Eraikuntzako Kode Teknikoa eta gainerako araudia hartuko da kontutan.

4. Hondakinen gelak bertara erraz heltzeko moduan izango du, kanpotik sarrera zuzena eta independentearekin, eta ahal izatera, beheko solairuan. Teknikoki zurituz gero, onartuko da erdi-sotoan egotea, betiere ibilgailuen sarbidetik gertu.

5. Ez da baimenduko biltzaileak bertara heltzeko eraikin pribatuaren barrutik pasatu beharra egotea (esaterako, garajeak igaro beharra).

6. Gelak azalera egokia izan beharko du Udalak zehaztutako bilketa moduek jasotako azpiegitura eta kasuan kasuko edukiontziak jasotzeko.

Hala ere, gutxieneko azalera erabilgarria ondorengo formula erabiliaz kalkulatuko da:

A = P * 0,25.

A azalera erabilgarria m$^2$tan.

P etxebizitzako ohiko bizilagun kopurua. Zenbakia hau kalkulatzeko: P= gela bakunak + (gela bikoitzak x2).

ciente antelación, los cambios en el horario y la forma o frecuencia de prestación del servicio. La Alcaldía dictará las oportunas disposiciones en situaciones de emergencia, caso fortuito o fuerza mayor. Las especificaciones de detalle se regularán mediante Bando de Alcaldía.

*Artículo 15. Casos de emergencia.*

En aquellos casos considerados de emergencia, tales como conflictos sociales, inundaciones u otras situaciones de fuerza mayor en las que no sea posible prestar el servicio, y previa comunicación municipal, la vecindad se abstendrán de depositar sus residuos hasta que se normalice el servicio, o hasta que el Ayuntamiento dicte las instrucciones oportunas.

*Artículo 16. Puntos de recogida de residuos urbanos.*

El tipo de los puntos de recogida, el número de unidades a emplear en cada zona y su ubicación, se fijará por los servicios del ayuntamiento, teniendo en cuenta los intereses del municipio.

*Artículo 17. Cuarto de residuos.*

1. Con excepción de los destinados a vivienda unifamiliar aislada, adosada y bifamiliar, todos los edificios nuevos que se construyan dispondrán de un espacio de reserva en el que pueda construirse un almacén de contenedores. Este espacio de reserva se puede utilizar para cualquier otro uso provisional (almacén de bicicletas p. e.) hasta que se construya el almacén de contenedores.

2. Los almacenes de residuos computarán a efectos de edificabilidad.

3. Estos locales estarán dotados de ventilación natural o forzada independiente y cumplirán las condiciones establecidas en las Normas Urbanísticas vigentes además de las siguientes condiciones:

VIVIENDAS.

Puertas de acceso con ancho superior a 1,2 metros.

Suelos impermeables y lavables, pavimentos enlucidos con azulejo o mortero a una altura mínima de 2m.

Puntos de luz con interruptores y punto de iluminación de emergencia.

Grifos de agua con mangueras para el lavado fácil y directo de todo el local.

Sumidero sifónico antimúridos en el suelo para desagüe de las aguas de lavado.

Siempre se atenderá a lo recogido en el Código Técnico de la Edificación yresto de normativa aplicable.

4. El cuarto para el almacenaje de residuos, debe ser accesible y contar con comunicación directa e independiente desde el exterior y deberá situarse preferentemente en planta baja. En supuestos técnicamente justificados, se admitirá la ubicación en planta semisótano, siempre junto al acceso rodado.

5. No se autorizarán las ubicaciones que supongan un recorrido de recogida municipal que transcurra por el interior del edificio privado (por ejemplo, garajes) hasta el almacén.

6. El local deberá tener una superficie suficiente para albergar los instrumentos para recoger las diferentes fracciones de residuos.

No obstante y a los efectos del cálculo de la superficie útil mínima, está podrá calcularse atendiendo a la siguiente fórmula:

S = P * 0,25.

Siendo:

S la superficie útil en m$^2$.

P el número estimado de ocupantes habituales del edificio. Este número se puede obtener sumando el número total de dormitorios sencillos y el doble de los dormitorios dobles.

EK\CV GAO-I-2017-04130

Edozein kasutan, azalera erabilgarria gutxienez 3 $m^2$takoa izango da.

Diseinuak hondakin atal bakoitza jasotzeko tresna bildu, mugitu eta erabiltzeko aukera emango du.

*18. artikulua. Garbiketa.*

1. Norberaren edukiontziak garbi eta txukun edukitzea norberaren ardura izango da.

2. Kaleko edukiontziak garbi eta txukun edukitzea Udalaren ardura izango da.

3. Hondakinen gelak garbitzeko ardura etxepeak izango du.

*19. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizuna.*

Etxebizitza, merkataritza-gune, biltegi, azoka, ikuskizunetako lokal, ikastetxe, industria, osasun-establezimenduen jabe edo erabiltzaile guztiek eta, oro har, zerbitzu honek eragiten dituen erabiltzaile edo onuradun guztiek:

a) Udal bilketa-zerbitzua erabiltzeko eskubidea dute.

b) Hondakinen arloan aplikagarria den araudia betetzeko obligazioa dute, batez ere ordenantza honetan jasotzen dena.

c) Udalak eskatuta, hondakinak botatzen dituen pertsona identifikatzeko obligazioa dute.

*20. artikulua. Erabilpen arauak.*

1. Zerbitzuaren erabiltzaileek, hondakin atal bakoitza ondo sailkatuta eta Udalak horretarako jarritako egun, ordu, modu eta lekuetan utzi beharko ditu.

2. Debekatuta dago hondakin likido zein urtzeko modukoak ateratzea.Debekatuta dago hondakinak nonahi uztea. Erabiltzaileak behartuta daude jarritako ordutegian, lekuetan eta moduan uztera.

3. Debekatuta dago bilketa lekuak hondatu edo desitxuratu dezakeen edozein ekintza.

4. Debekatuta dago kaleko koloreetako paperontzi edo hondakin ontzietan etxeetan sortu diren hondakin poltsak uztea.

*21. artikulua. Hondakin organikoen gaikako bilketa.*

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartua daude hondakin organikoak uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.

2. Udalari ikuskaritza egitea ahalendu beharko diote etxean konpostatu eta ordenantza fiskaletan jasotako hobaria jasotzen dutenek.

3. Auzokonposta kanpainan parte hartu nahi dutenek, auzokonposta guneko giltza jaso eta bertan konpostatzen hasteko Udalak ikastaroa jaso beharko dute.

4. Auzokonposta kanpainan parte hartzen duten herritarrek hondakin organikoa konpostagailura botatzean kontutan hartu beharko dituzte ikastaroan emandako jarraibideak.

5. Auzokonposta gunea eta konpostatzeko beharrezko tresneria Udalak jarriko ditu.

En cualquier caso, la superficie útil del local para almacenamiento de los residuos generados en el edificio debe ser como mínimo de 3 $m^2$.

El diseño y distribución del local será tal que facilite el uso, manipulación y traslado de los recipientes, así como de las operaciones de lavado de los mismos.

*Artículo 18. Limpieza.*

1. Será responsabilidad de las personas usuarias mantener en condiciones de limpieza los cubos.

2. Será responsabilidad del ayuntamiento mantener en condiciones de limpieza los contenedores colocados en la vía pública.

3. Será responsabilidad de la comunidad mantener en condiciones de limpieza el cuarto de residuos.

*Artículo 19. Derechos, obligaciones y responsabilidad de las personas usuarias.*

Todo/a propietario/a, usuario/a de una vivienda, establecimiento comercial, almacén, mercado, local de espectáculos, centro de enseñanza, industria, establecimiento sanitario, y en general, toda persona usuaria afectada o beneficiada por este servicio tiene:

a) El derecho a utilizar el servicio de recogida municipal.

b) La obligación legal de cumplir la normativa legal aplicable en materia de residuos, y específicamente la contenida en la presente ordenanza.

c) La obligación de, a requerimiento municipal, identificar a la persona que deposita los residuos.

*Artículo 20. Normas de uso.*

1. Quienen utilizan el servicio están obligados a entregar los residuos domiciliarios segregados en cada una de las fracciones en el día, la hora, la forma y el lugar fijados por el ayuntamiento.

2. Se prohíbe el depósito de basuras que contengan residuos líquidos o susceptibles de licuarse. Se prohíbe el abandono de residuos. Los/as usuarios/as están obligados/as a depositarlos con arreglo a los horarios y en los lugares y forma señalados.

3. Queda prohibida cualquier actuación que deteriore las zonas de recogida, funcional o estéticamente.

4. Queda prohibido depositar bolsas de basura en las papeleras selectivas colocadas en la vía pública y parques públicos.

*Artículo 21. Recogida selectiva de la fracción orgánica.*

1. Los/as usuarios/as del servicio están obligados/as a entregar la fracción orgánica en la forma y los horarios que establezca el ayuntamiento.

2. Se permitirá la inspección por parte de los servicios municipales a aquellos que composten y se les aplique la bonificación de autocompostaje definida en las ordenanzas fiscales.

3. Las personas interesadas en participar en la campaña de compostaje vecinal, deberán recoger la llave del centro de compostaje vecinal y realizar allí el curso de iniciación al compostaje impartido por el Ayuntamiento.

4. Quienen participen en la campaña de compostaje vecinal deberán observar las instrucciones recibidas en el curso a la hora de depositar residuos orgánicos en la compostadora.

5. El ayuntamiento suministrará tanto el centro de compostaje vecinal como las herramientas necesarias para el compostaje.

EK\CV GAO-I-2017-04130

6. Udalak auzokonpostaren funtzionamendu egokia bermatzeko, jarraipen eta ikuskaritza zerbitzua bermatuko du gutxienez astean bitan auzokonposta gune bakoitzera bisita eginez eta auzokonposta bakoitzaren egoera zein den jasoko du.

7. Udalak auzokonposta-guneak lehorkinarekin hornitzeko ardura izango du eta konposta etxolan zehar mugitzeko eta etxolatik atratzeko ardura ere Udalarena izango da.

*22. artikulua. Papera eta kartoiaren bilketa.*

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartua daude papera eta kartoia uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.

*23. artikulua. Ontzi arinen gaikako bilketa.*

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartua daude ontzi arinak uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.

2. Ontzi hauek garbiak utziko dira.

*24. artikulua. Beirazko ontzikien gaikako bilketa.*

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartua daude beirazko ontzikiak uztera, Udalak horretarako adierazitako moduan. Beirazko ontziak goizeko 8:00etatik gaueko 22:00etara utzi ahal izango dira.

2. Beirazko ontzikiak bide publikoan horretarako dauden ontzietan utziko dira.

*25. artikulua. Errefus zatiaren gaikako bilketa.*

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartua daude errefus zatia uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.

*26. artikulua. Merkataritza eta ostalaritza.*

1. Merkataritza zein ostalaritzako arduradunak behartuta egongo dira hondakinak aurreko artikuluan adierazten den moduan kudeatzera; hau da, horiek ere hondakinak zatika banatu beharko dituzte eta zati bakoitza 21, 22, 23, 24 eta 25. artikuluetan adierazten den moduan kudeatu.

2. Arrandegi eta harategiek baimendutako kudeatzaileekin kudeatu beharko dituzte mota horietako hondakinak eta Udaletxean aurkeztu, Udalak hala eskatzen dien bakoitzean, kudeaketa horien agiriak.

3. Merkatari eta ostalariek, jardueraren ondorioz sortzen duten porespanezko bildukiak edo/eta plastikozko bilgarriak (embalajes de plástico) kudeatzaile propioekin kudeatu beharko dituzte eta, Udaletxean aurkeztu, Udalak hala eskatzen dien bakoitzean, kudeaketa horien agiriak.

4. Ostalariek, jardueraren ondorioz sortzen duten olio erabilien hondakina kudeatzaile gaitu propioekin kudeatu beharko dituzte eta Udaletxean aurkeztu, Udalak hala eskatzen dien bakoitzean, kudeaketa horien agiriak.

5. Zerbitzua erabiltzen dutenek kontuan izango dute, bai eman zaien edukiontzia bai barruko edukia beren ardurapekoa direla. Beraz, bilketa zerbitzua edukiontzietatik kanpo eta inguruan egon daitezkeen hondakinez ez da arduratuko. Salbuespen gisa, establezimenduetan sortutako kartoia edukiontzirik gabe bilduko da, Udalak zerbitzuaren erabiltzailearekin hala adosten duen kasuetan.

6. Edukiontzietan botatako hondakinak bilketako ibilgailuan hustu ondoren, bilketa zerbitzuak edukiontzi hori berriz ere hartu duen leku berean utzi beharko du.

7. Edukiontziak behin hustu eta gero, zerbitzua erabiltzen dutenek euren establezimendu, saltoki edo lokalean sartuko dute berriro.

8. Ezin izango da Udalak edo bilketa zerbitzuak zuzenean emandako edukiontzia ez den bestelako edukiontzirik erabili, ezta kaxa, zakuak, paletak, kaiolak edo bestelako ontzirik ere.

6. El ayuntamiento para garantizar el buen funcionamiento de los centros de compostaje vecinal hará un seguimiento del centro de compostaje mínimamente dos veces por semana y recogerá el estado de cada centro de compostaje.

7. El ayuntamiento se responsabilizará del suministro del material estructurante, así como de remover el compost dentro de las casetas y de vaciarlas.

*Artículo 22. Recogida selectiva de papel y cartón.*

1. Las personas usuarias del servicio están obligadas a entregar el papel y el cartón en la forma y los horarios que establezca el ayuntamiento.

*Artículo 23. Recogida selectiva de envases ligeros.*

1. Los/as usuarios/as del servicio están obligados/as a entregar los envases ligeros en la forma y los horarios que establezca el ayuntamiento.

2. Los envases se entregarán limpios.

*Artículo 24. Recogida selectiva de envases de vidrio.*

1. Las personas usuarias del servicio están obligados a entregar los envases de vidrio en la forma que establezca el ayuntamiento. El horario para depositar los envases de vidrio será de 8:00 de mañana a 22:00 de la noche.

2. Los envases de vidrio se depositarán en los contenedores ubicados al efecto en la vía pública.

*Artículo 25. Recogida selectiva de la fracción rechazo.*

1. Las personas usuarias del servicio están obligados a entregar la fracción rechazo en la forma y los horarios que establezca el ayuntamiento.

*Artículo 26. Comercio y hostelería.*

1. Las personas responsables de comercios y hostelería están obligadas a gestionar los residuos en la forma indicada en los artículos anteriores, es decir, deberán segregar los residuos y gestionar cada fracción en la forma en indicada en los artículos 21, 22, 23, 24 y 25.

2. Las carnicerías y pescaderías deberán gestionar los subproductos a través de gestores autorizados, y deberán presentar en el ayuntamiento, si así lo solicitara, los documentos de dicha gestión.

3. Los comercios y hosteleros que generan envases de porespan y/o embalajes de plástico deberán gestionar dichos materiales a través de gestores propios y deberán presentar en el ayuntamiento, si así lo solicitara, los documentos de dicha gestión.

4. El aceite de hostelería se deberá gestionar a través de gestores propios y deberán presentar en el ayuntamiento, si así lo solicitara, los documentos de dicha gestión.

5. Las personas usuarias del servicio deberán tener en cuenta que tanto el contenedor suministrado como su contenido son de su propia responsabilidad. Por tanto, el servicio de recogida no se responsabilizará de los residuos que puedan aparecer fuera de los contenedores o en los alrededores. Como excepción, el cartón proveniente de los establecimientos se recogerá sin contenedor, cuando así lo acuerde el Ayuntamiento con el responsable del servicio.

6. Una vez vaciados en el vehículo de recogida los residuos depositados en los contenedores, el servicio de recogida dejará el contenedor en el mismo lugar en que lo encontró.

7. Una vez vaciados los contenedores, los usuarios del servicio los introducirán de nuevo en sus establecimientos, comercios o locales.

8. No se podrá utilizar ningún otro contenedor aparte del suministrado directamente por el Ayuntamiento o el servicio de recogida, ni ninguna otra caja, saco, palet, jaula o contenedor.

EK\CV GAO-I-2017-04130

9. Edukiontzien hustuketa eta bilketa ezin izango da establezimendu, saltoki edo lokal barruan egin, ezta bilketako ordutegi eta erabiltzailearen jarduera ordutegia bat datozenean edota zaintzailea dutenean ere.

*27. artikulua. Ekoizle handiak.*

Zenbait komertzio eta enpresetako hondakinak arazoak sor ditzakete hondakinen bilketa-zerbitzuan, batik bat hondakin horien bolumenagatik. Horregatik, horrelako kasuetan, erabiltzaileak hondakin horiek utzi beharko ditu Udalak jarritako lekuetan, hondakinak isurtze arriskutik kanpo. Edukiontzi horiek homologatuak izango dira eta haiek garbitzeaz eta mantentzeaz erabiltzailea arduratuko da.

Enpresa handiak Udalak hondakin bilketa zerbitzutik kanpo utz ditzake hondakinaren ezaugarriak edo hondakin kopuruak berak bilketa zerbitzua asko eragozten duenean.

II. KAPITULUA. BILKETA BEREZIAK

I. ATALA. Altzari, etxeko tresneria eta traste zaharren bilketa

*28. artikulua. Altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak.*

Garbigunera eraman eta han utzi behar dira.

*29. artikulua.*

1. Aurrekoaz gain, mota horretako altzariak biltzeko San Marko Mankomunitateak zerbitzu berezia antolatuko du. Hala, zerbitzu horretaz baliatu nahi duenak, aurretiaz Mankomunitateari jakinarazi beharko dio telefonoz eta bilketa burutzeko beharrezko informazioa eman beharko du; horretaz gain, zerbitzuari dagokion tasa ordaindu beharko du eta etxe atarian bertan edo ezinezkoa denean, bulegoko teknikariarekin adostutako gunean jasoko da. Zerbitzua gauzatzeko, hondakinak kalean jarriko dira, Mankomunitateak zehaztutako gune, egun eta orduetan. Langilea ez da etxe barruraino sartuko altzariak jasotzera eta zerbitzuaren erabiltzaileak Mankomunitateari adierazi dizkion altzariak soilik jasoko ditu.

2. Zerbitzu horrek edozein motatako altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak bilduko ditu, baldin eta haiek maneiatzeko baliabide mekanikorik erabili behar ez bada; hau da, garabi, polea eta abar behar ez baditu. Ez dira etxe aldaketen edo eraberritzeen ondorioz sortutako etxe oso bateko altzariak jasoko. Udalak jasoko den altzari kopuruari muga ezarri diezaioke, honek bilketa zerbitzua eragozten duenean.

II. ATALA. Hondakin toxiko eta oihalak

*30. artikulua. Sukaldeko olioa.*

Mota horretako hondakinak Garbigunera eraman beharko dira edo hilean bitan (hileko 2. ostirala eta azken ostirala) Barandiaran Plazan edo Ergobian mota horretako hondakinak biltzeko jartzen den kamioira (Garbigune ibiltaria) eraman. Hirugarren irtenbidea Udalerrian jarritako olioa biltzeko edukiontzieatara eramatea da.

*31. artikulua. Garbigune ibiltaria.*

Mankomunitateak etxeetan sortzen diren hainbat hondakin berezi biltzeko Garbigune ibiltaria zerbitzua antolatua dauka. Mota horretako hondakinak Mankomunitateak finkatutako puntuetara eraman beharko dira: hilean bitan (hileko 2. ostirala eta azken ostirala). Barandiaran Plazara edo Ergobiara.

9. El vaciado y la recogida de los contenedores no podrán realizarse dentro del establecimiento, comercio o local, tampoco en los casos en que coincidan el horario de recogida y el horario de actividad de la persona usuaria, ni cuando exista una persona vigilante.

*Artículo 27. Grandes productores.*

Ciertos comercios pueden ocasionar distorsiones en el servicio de recogida de residuos, principalmente debido al volumen de estos. Por lo tanto, en tales casos, el/la usuario/a deberá depositar los residuos urbanos en los lugares y formas que determine el ayuntamiento, libres de todo riesgo de vertido. Dichos contenedores deberán ser homologados y corresponderá al usuario el mantenimiento y limpieza de los mismos.

El Ayuntamiento podrá excluir a las grandes empresas del servicio de recogida de residuos asimilables cuando su composición o la cantidad de residuos dificulten extraordinariamente la recogida de los mismos.

CAPÍTULO II. RECOGIDAS ESPECIALES

SECCIÓN I. De la recogida de muebles, enseres domésticos y trastos viejos

*Artículo 28. Los muebles, enseres domésticos y trastos viejos.*

Se llevarán al punto limpio o Garbigune.

*Artículo 29.*

